

OHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Bilera- zenbakia: 2025ICGO0020

Eguna: 2025-12-03

Ordua: 09:30 - 09:40

Tokia: Alkatetza

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero Astigarragako EH Bildu

Bertaratu ez direnak

- Patxi Suarez Perez Udal talde euskal sozialistak
- Maria Otaegi Velez Astigarragako EAJ- PNV

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

- 1.- 2025eko azaroaren 25eko akta onartzea.
- 2.- Norberto Almandoz plazako azoka txikirako estalki bizia eraikitzeako obra-kontratuan bioeraikuntzako irizpidekin egin beharreko lanen kontratazio-espeditente berria.
- 3.- Merkataritza ekintzailtza sustatu eta jarduera ekonomikoak sendotu eta mantentzeko dirulaguntza.
- 4.- Usategieta baserria erainsteagatik izapidetutako zehapen-espeditentearen ebazpena.
- 5.- Informazio, galdera eta eskariak.

Esan- eginak eta erabakiak

1.- 2025eko azaroaren 25eko akta onartzea.

Aho batez onartu da.

2.- Norberto Almandoz plazako azoka txikirako estalki bizia eraikitzeako obra-kontratuan bioeraikuntzako irizpidekin egin beharreko lanen kontratazio-espeditente berria.

Alkateak kontratazio-espeditente berria izapidetzearen arrazoiak eman ditu. Azaldu du azoka txikiaren obra bi lotetan banatu dela, eta horietako bat hutsik jo behar izan dela aurkeztu den enpresa bakarrak B kartazala aurkeztu ez zuelako; eta obra gauzatzeko ezinbestekoa denez bi loteetako lanak koordinatzea eta ondorioz bi obra-kontratuak batera esleitzea, hutsik gelditutako lote hori esleitzeko espeditente berria izapidetzea beharrekoa dela, eta gainera presazko izapidetzea deklaratzeko.

Ondoren, akordio proposamen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehena.- Kontratazio-espeditentearen presazko izapidetzea deklaratzeko. Izan ere, obra behar bezala egiteko, ezinbestekoa da obra-proiektuko bi loteak esleitzea, biak koordinatu eta epe beretan



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

gauzatzea, eta horrek dakar bi obra-kontratuak epe beretan formalizatu behar izatea.

Bigarrena.- Kontratazio espediente berri honetarako prestatu diren baldintza plegu administratiboak onartzea.

Hirugarrena.- Kontratazio espedientea onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea.

Bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

3.- Merkataritza ekintzailtza sustatu eta jarduera ekonomikoak sendotu eta mantentzeko dirulaguntza.

Alkateak Toki garapenerako teknikariaren txostena aurkeztu du eta eskatu du akordio hau onartua izan dila:

Bakarra.- SUPER ASTI S.L.U. (B21929146)ri merkataritza ekintzailtza sustatu eta jarduera ekonomikoak sendotu eta mantentzeko dirulaguntzaren 2.erroaren barruan, 4.000€tako dirulaguntza ematea, 1 1000.471.01.241.00 2025 kontu-sailaren kargura.

Jarraian bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

4.- Usategieta baserria erainsteagatik izapidetutako zehapen-espedientearen ebazpena.

Alkateak espedientea izapidetu izanaren arrazoiak eman ditu eta udal aholkulari juridikoaren txostenaren nondik norakoak azaldu ondoren, akordio hau hartzea proposatu du:

Lehena.- José CASLA URIARTE jaunari **BERROGEITA HAMAR MILA ETA BAT EUROKO (50.001 €) ZEHAPENA JARTZEA**, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 225.1 b) artikulua araberako egindako arau-hauste oso larriagatik.

Bigarrena.- Erabakia jakinarzte José CASLA URIARTERi, eta horrekin batera 2025eko abenduaren 1eko txosten juridikoa bidaltzea.

Jarraian bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

5.- Informazio, galdera eta eskariak.

Ez da egon.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut.

Astigarragan, 2025eko abenduaren 3an.

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal- idazkaria

